



Nola hobe daiteke iraunkortasuna nekazaritzan?

Europar Batasunaren nekazaritza politikan iraunkortasun irizpideek garrantzi handia hartu dute azkenaldi honetan eta araudiaren bitartez ingurumena eta landa eremua babestuko duten nekazaritza ereduak bultzatzen saiatzen da.

Bi helburu ditu Europar Batasunak iraunkortasunari dagokionez:

- 1• Batetik nekazaritza iraunkorren kontzeptua eta inplikazioak ezagutaraztea.
- 2• Bestetik, Europar Batasunak ezartzen duen nekazaritza politikari buruzko hausnarketa sakona egitea.

Gaur egun, Europar Batasuneko luraren erdia nekazaritzara bideratua dago. Honek argi usten du zer nolako garrantzia duen nekazaritzak ingurumenean eta, bestalde, nekazaritza lanen eta ingurumenaren arteko lotura estua ere.

Mendeetan zehar nekazaritzak habitat ezberdinen biziraupenean eta sormenean lagundu du, eta berari esker gaur egun Europar Batasuneko paisaian izurgarriko aberastasun zoologikoak ditugu.

Halere, luraren, uraren eta atmosferaren kutsadura, habitat askoren zatiketa eta basoko bizitzaren desagertzea, luraren erabilera eta nekazaritza jarduera desegokien ondorioz gertatu dira.

Hori dela eta, Europar Batasunak bultzatzen duen politikak ingurumenaren degradazioa sahistera bideratzen da, nekazaritzak ingurumen naturalen mantenuan eta natur guneetan eragin positiboa izaten jarraitu dezan.

Horrez gain, berebiziko garrantzia du Europar Batasuneko herritarrentzat nekazal produktuen segurtasuna bermatzea lehenetasuna dela jakiteak. Izan ere, Europako herritarrek ingurumena errespetatuko duen nekazaritza nahi dute. Nekazal ustiapen txikiak eta ertainak sustatzearen al-

dekoak dira eta nekazariak kontsumitzaileen beharrei egokitzeko produkzioan moldaketak egiteko laguntzak ematea egoki ikusten dute.

Nekazaritza iraunkor baterantz

Nekazaritza iraunkor batek soilik bermatuko du gure ondorengoek gaur egun gozatzen ditugun natur baliabideetatik gozatzea.

Iraunkortasun hori lortzeko nekazaritza





sektorearen bideragarritasuna eta lehiakortasuna hobetu behar da eta landa eremuetako garapen ekonomikoa bultzatu eta bizi baldintzak hobetu. Horrez gain, ingurumenarekin arduratsua den nekazaritza bultzatu beharko litzateke, habitata, biodibertsitatea eta paisaia mantentzeko zerbitzuak eskainiz.

Iraunkortasunaren dimentsioa Europar Batasuneko nekazaritza-politiketan barneratzeko baldintza batzuk bete behar ditu:

- Nekazaritza eta abeltzaintza produktioen eta ingurumenaren arteko bateragarritasuna bultzatzen duten neurriak hartu (adibidez, ingurumena kaltetzen ez duten produktioetan inbertsioak areagotu eta nekazaritza estensiboa sustatu).
- Nekazariak paisaiaren eta biodibertsitatearen bermatzaile bezala kontsideratzea eta neurriak hartzea funtzio hori indartzeko.

Laburbilduz, neurriak hartu behar dira nekazariari ingurumenaren alde egiten dutenean eskertu ahal izateko.

Ingurumenaren aberastasuna eta nekazaritza praktiken arteko lotura konplexua da. Nahiz eta Europan dauden habitat asko eta basa espezie ugari nekazaritza estentsiboari esker bizirik dirauten, nekazaritzak natur baliabideen aurkako eragina ere izan dezake.

Gaur egun landa eremuetako garapena sustatzeko dauden dirulaguntzak lortzeko, gutxieneko ingurumen arau batzuk kontuan hartu behar dira. Halaber, nekazaritza jardunbide egokien kodeaz gain konpromiso maila altuagoa hartzen dutenek soilik eskuratuko dituzte nekazaritza eta abeltzaintza jardueratako laguntzak.

Nekazaritza jardunbide egokiek ingurumenari buruzko Europako nahiz estatuko legedia betetzea eskatzen dute, esate baterako, nitratoen gaineko direktiba eta produktu fitosanitarioen inguruko legedia.

Hori bai, gizarteak nekazaritza jardunbide egokiez aparte ingurumen helburu gehiago eskatzen dizkionean nekazaritza sektoreari eta horrek nekazariari errenta gutxitze bat edo gastu bat eragiten dionean, neurriak hartu beharko lirateke gastu horiek ordaintzeko.

Nekazariak ingurumen arauak betetzen ez dituztenerako, zehapen edo zigorrak ezarri beharko lirateke, zuzeneko dirulaguntzak gutxitu edo guztiz kenduz.

Ingurumen baldintzen adibidea:

- Maldako laborantzaren berrezko baldintzak errespetatzea.
- Hektarea bakoitzeko baimendutako ongarri kopurua errespetatzea.
- Produktu fitosanitarioen aplikaziorako arau zehatzak aplikatzea.

Nekazaritza eta ingurumen baldintza egokien definizioa estatu bakoitzari dagokio, baina luraren, paisaia eta habitaten babeserako eta materia organikoaren mantentzerako neurriak aintzat hartu beharko litzateke estatu bakoitzak, besteak beste. Horrez gain, bazka iraunkorreko zonaldeen gutxitzea sahistu beharko dute, laborantza lurra bilakatu ez daitezen.

- ➔ Nekazaritzak biodibertsitatearen mantenuan lagun dezake?
- ➔ Zer esan nahi du baliabide genetikoaren kontserbazioak eta erabilera iraunkorrak?
- ➔ Nola babesten du Europar Batasunak herritarren osasuna eta ingurumena laborantzaren arriskuetatik eta genetikoki eraldatutako organismoetatik?
- ➔ Europar Batasunak pairatzen duen berotegi efektuaren gasetatik zenbat dagozkie nekazaritzari?
- ➔ Europar Batasunak klima aldaketa sahisteko zer nolako konponbideak aurreikusten ditu?

Galdera hauen erantzuna ezagutu nahi baduzue, ondorengo estekara jo dezakezue:

http://ec.europa.eu/agriculture/envir/index_es.htm